


Saihestu etxeko istripuak



JUSTIFIKAZIOA

Istripuak dira gure gizartean gaixotasunaren eta heriotzaren kausa nagusietako bat. Gainera, gehienak eremu pribatuan gertatzen dira, hau da, etxean eta aisialdiko jardueretan.

Egia esan, istripu horietako gehienak saihestu egin daitezke, eta, horretarako, funtsezkoa da oinarritzko segurtasun-arauak betetzea eta produktuek zentzu horretan eskaintzen dituzten informazioan arreta jarri eta interpretatzen jakitea.

HELBURUAK

- Etxeko istripuen prebentzioari buruzko esperientziak, ezagutzak eta ikuspuntuak trukitzea belaunaldi desberdinetako pertsonen artean.
- Gure segurtasunari begira produktuek eskaintzen duten informazioa baloratzea.
- Etxe batean egon daitezkeen arriskuak eta eskura ditugun baliabideak aztertzea, arrisku horiek saihestu ahal izateko.
- Etxean gure segurtasuna zaintzeko prebentzioak duen garrantziaz jabetzea.
- Etxeko segurtasunari buruzko oinarritzko arau batzuk aplikatzea.

EDUKIAK

- Etxeko istripuak eta nola saihestu.
- Produktuen segurtasuna.
- Arrisku-sinboloak.
- Produktuen etiketen jarraibide eta ohartarazpenak.
- Jostailu eta bideo-jokoen etiketatzea.
- Altzari seguruak hautatzea.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jarduera)

- Galdetegia. Nola saihestu etxeko istripuak?
- Etxeko segurtasunari buruzko sinesmen eta ezagutzei buruzko aurretiazko ezagutzak aktibatu eta hausnarketa egin.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Tertulia. Etxean egon daitezkeen arriskuak eta horiek saihesteko eskura ditugun baliabideak.
- Kontzeptu-mapa. Etxean istripuak prebenitzeko gakoak.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jarduera)

- Elkarlaneko horma-irudia. Argazki eta iruzkinekin mural bat sortzea, saioan ikasitakoa eguneroko bizitzan nola aplikatu duen jasota uzteko.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Komunikazio-, hizkuntza- eta literatura-gaitasuna.
- Gaitasun zientifikoa.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.

ZEHARKAKOAK

- Hitzeko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Elkarrekin bizitzeko gaitasuna.
- Izaten jakiteko gaitasuna.

METODOLOGIA

- Lan indibiduala.
- Design Thinking.
- Lankidetzalana.

ANTOLAKUNTZA

*IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
<ul style="list-style-type: none">• Telefono mugikorra edo tableta• Ordenagailua<ul style="list-style-type: none">• Pantaila• Internet	<ul style="list-style-type: none">• Talde murriztuak gelan.	Saio bat - 90'

* Solasaldia burutzeko espazio egokia.

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta